

## AUTOEBALUAZIO ARIKETAK

### 4.GAIA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

1. Erizaintzako practicumaren Ikaskuntza Emaitzak erabakitzeko partaidetza metodologia erabili zen. Zenbatekoa izan zen inplikaturako agenteen partaidetza?
  - a) % 58 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 22 erizaintzako ikasleak eta % 20 unibertsitateko irakasle tutoreak.
  - b) % 58 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 20 erizaintzako ikasleak eta % 22 unibertsitateko irakasle tutoreak.
  - c) % 22 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 58 erizaintzako ikasleak eta % 20 unibertsitateko irakasle tutoreak.
  - d) % 20 erakunde laguntzaileetako erizain instruktoreak, % 22 erizaintzako ikasleak eta % 58 unibertsitateko irakasle tutoreak.
  
2. Ikaskuntzaren emaitzak erabakitzeko, abiapuntu gisa, dokumentu bat sortu zen, eta dokumentu horretako atalak 4. mailako gaitasunekin lotuta zeuden. Adierazi zein erantzun EZ datorren bat atal horien izenburuekin.
  - a) Paziente, senide eta taldeekiko harremana.
  - b) Talde lana.
  - c) Medikazioa ematea.
  - d) Erizaintzako Prozesuaren garapena.
  
3. Ikaskuntzaren Emaitzei dagokienez, adierazi zein erantzun EZ den zuzena:
  - a) Ikaskuntzaren emaitzak zein mailatatik aurrera garatu behar diren erabaki zen.
  - b) Ikasmaita batean Ikaskuntzaren emaitza bat egiaztatzen bada, ez da berriro ebaluatzen goragoko maila batean.
  - c) Ikaskuntzaren hainbat emaitza ezinbestekoak dira; hau da, ez badira garatzen, ez da practicum gaindituko.
  - d) Ikaskuntzaren hainbat emaitza espezifikoak dira osasun arloaren arabera.
  
4. Erizaintzako Prozedura Orokorren Orriari dagokionez:
  - a) Gradua lortu baino lehen ikasleek egiaztatu behar dituzten prozedurak biltzen ditu.
  - b) Orri horretako prozedurak hainbat osasun arlotan gauzatu daitezke.
  - c) Prozedurak irakasgai teoriko-praktikoetan lantzen dira Fakultatean, practicumean gauzatu aurretik.
  - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
  
5. "Erizaintzako Prozesuaren Garapena" atalaren Ikaskuntzaren Emaitzek hainbat atal dituzte. Adierazi zein EZ den zuzena:
  - a) Balorazioa.
  - b) Diagnostiko medikoa.
  - c) Esku hartzea.
  - d) Ebaluazioa.

## ERANTZUNAK

Galdera zenbakia	Erantzun zuzena
1	a
2	c
3	b
4	d
5	b